

**Jardunaldiak EUSKADIKO IJITO HERRIA:
ANIZTASUNAREN ALDE, DISKRIMINAZIOAREN AURKA.**
3. tailerra: DISKRIMINAZIOA ENPLEGUAN.
Vitoria/Gasteiz, 2006ko azaroaren 15a

SARRERA:

1. Estatuko ijitoek¹, eta, ondorioz, EAEko ijitoek, langabezia-indize handiak dituzte, gainerako herritarrenak baino askoz ere handiagoak; izan ere, azpienpleguan eta jarduera ekonomiko informaletan aritu behar izaten dute normalean, eta aldi luzeak ematen dituzte langabezian.
2. Giza Eskubideetarako Europako Kontseiluko komisario Álvaro Gil-Robles jaunak txostena egin du, 2005ean Espainian egindako bisitari buruz. Hartan nabarmendu duenez, badira bi faktore ijitoak lan-merkatuan sartzea baldintzatzen dutenak: batetik, lanbide-kualifikazio txikia, eta, bestetik, beste herrialde batzuetan bezala, diskriminazio-jarrera lanpostuetara aurkezterakoan.
3. ECRik² 2005ean ere argitaratu duen Hirugarren Txostenean adierazten denez, ijitoen aurkako diskriminazioa oso hedatua dago oraindik ere, kontratazioaren unean zein lanpostuan bertan.
4. Bi dokumentuetan salatzen denez, ijitoek sarritan jasaten dute diskriminazio-tratua. FSGren 2005eko Txostenak (Ijitoak eta enplegua) zenbait datu esanguratsu ematen ditu aditzera. Esaterako, ijitoen % 45,40k diskriminazioa sentitu du lan egiterakoan edo prestatzerakoan (kasu horien % 80 inguru ijitoak lan bila zebiltzala gertatu da). Prestakuntza-maila txikia edo oso txikia duten 25 urtetik 35 urtera bitarteko gizonezko langabe gehienek nabarmendu dute hori.
5. Beraz, argi dago ijitoek gaizki tratatzen dituztelako ustea dutela; nolana ere, iritzi subjektibo hori alde batera utzita, kontua da gaur egun ere asko direla ijito bat kontratatzeari uko egiten dioten enpresaburuak. Askotan³ langileak biltzeko eta/edo hautatzeko prozesuetan adierazten da argi eta garbi, eta, beste batzuetan, lan-jarduera abiatu ondoren gertatzen da, enplegu-emaileak langileen jatorri etnikoaz ohartzean; horrelakoetan, gainera, iruzur egin izana ere leporatzen diete batzuetan, hasieran horren berri ez emateagatik, CVa aurkezterakoan nahitaez eman beharreko datua balitz bezala.
6. Batzuetan lan-jazarpeneko egoerak ere salatu izan dituzte; oro har larderiazko eta irainezko inguruneaz kexatzen dira, eta bereziki zurrumurru arrazistak, mespretxuzko

¹ FSGren 2005eko txostena: Ijitoak eta enplegua. Azterlan konparatua

² ECRI: Arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, Europako Kontseiluari esleitua

³ FSGren 2006. Urteko txostena: Diskriminazioa eta ijitoen komunitatea

tratu eta beren lanbide-kategoriatik beheragoko zereginak egin beharra salatzen dute.

7. Egoera horien aurrean, gertaerak etsipenez onartzeko joera nabari da biktimen artean, gertaera horiek berezkozat eta ezinbestekozat jotzen baitituzte. Izan ere, ijitoek langatazkak sorrarazten dituztelako ospea dute, eta horri faktore etnikoa erantsita, langabezia-egoera are larriago bihur daitekeela uste dute. Gauzak horrela, ijitoek eskumeneko agintariei salaketa aurkeztea zaila izaten da benetan. Gainera, ijitoak ez dira sistema judizialaz eta langileen eskubideak babesteko sistemaz fidatzen, eta, hori ez ezik, zeharkako diskriminazio-kasuetan edo kontratazioaren aurretik egin ohi diren praktika bidegabeetan ez da batere erraza probak aurkitzea.
8. Inpunitate-sentsazio hori gorabehera, diskriminazioaren aurkako jarduneko lege-markoa dago (Espainiako Konstituzioa, Kode Penal, Langileen Estatutua, eta, bereziki, 2000/43 eta 2000/78 Europako Zuzentarauak), eta horrek diskriminazioaren aurkako nahikoa berme eskaini beharko luke, ez soilik pertsonen funtsezko eskubideak urratzen dituen fenomeno batetik babesteko, baita ikuspegi positibo batetik begiratuta ere, ijitoek bestelako eskubideak eta erabateko herritartasuna lortzearen.
9. Bestetik, eta diskriminazio-jardunak izatetik urrun badaude ere, kontuan hartzekoa da oraindik ere badirela zenbait oztopo lanerako prestakuntzarako sarbidea eta/edo prestakuntzan irautea baldintzatzen dituztenak, eta ondorioz ijitoak lan-merkatuan sartzea areago zailtzen dutenak. Besteak beste, eskaintza ez da beharko lukeen bezain malgua, formetan eta/edo edukian ijitoen komunitatearen errealitatera egokitzeko.

Jardunaldi hauek aukera ezin hobea eskaintzen digute ijitoak prestakuntzan eta enpleguan sartzeko ahaleginean inplikaturik dauden eragileek egoera horri buruz dituzten iritzi guztiak alderatzeko, hartara diagnostiko konpartitua adostu eta horri buruzko proposamenak zehaztu eta ezartzeko prozesuan aurrera egitearren.

Tailerrean honako hauei buruz eztabaidatu nahi dugu:

- ✓ Ijitoek lanerako prestakuntzan sartzekoan aurkitzen dituzten oztopoak
- ✓ Ijitoek lanerako prestakuntzan irautea zailtzen duten oztopoak
- ✓ Lan-merkatuari buruzko informazioa eskuratzea zailtzen duten oztopoak
- ✓ Besteren konturako enplegua eskuratzea zailtzen duten oztopoak
- ✓ Enpleguan eta lanbide-karreran irautea zailtzen duten oztopoak

ENPLEGUAN ETA PRESTAKUNTZAN DISKRIMINAZIOAREN OZTOPOAK GAINDITZEA

(Tailerraren ekarpen nagusiak)

✓ **Administrazioek eta zerbitzu publikoen hornitzaileek honako gomendio hauei jarraitu behar diete ijitoen komunitateari begira.**

- Diskriminazioaren aurkako kodeak erabili
- Inplikaturako eragileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea
- Ijitoen komunitateak gizartean duen irudia hobetzeko kanpaina
- Ikerketak sustatzea
- Prozesu eta atzerapenen jarraipena egitea
- Diskriminazioaren biktimei babesa ematea

✓ **GKEentzako gomendioak**

- Zuzenean parte hartzea
- Diskriminazioa salatzea
- Profesionalak eta boluntarioak prestatzea
- Arreta berezia giza eskubideen babeserako eskubideen aldetik
- Ijitoen komunitatea gizarteratze-bideetara hurbiltzea

TAILERREAN ERABILITAKO ETA/EDO AURKEZTUTAKO LAN DOKUMENTUAK:

- Espainiari buruzko hirugarren txostena (ECRI). Honako helbide honetan eskuragarri:
http://www.coe.int/T/e/human_rights/ecri/4-Publications/
- FSGren 2005eko txostena: Ijitoak eta enplegua. Ondorio, gomendio eta proposamenak. Honako helbide honetan eskuragarri:
<http://www.gitanos.org/publicaciones/estudioempleo/estudioempleofolleto.pdf>
- Ijitoek prestakuntzan eta enpleguan sartzeko aurkitzen duten diskriminazioa eta oztopoak (FSG). Honako helbide honetan eskuragarri:
<http://www.gitanos.org/acceder/documentos.html>
- FSGren 2006. Urteko txostena: Diskriminazioa eta ijitoen komunitatea. Honako helbide honetan eskuragarri:
<http://www.gitanos.org/publicaciones/discriminacion06/>